

DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA

**75 URTE
MUNDURA ZABALIK**

EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN EGUNA

Martxoak 19 Marzo
2023

DÍA DE MISIONES DIOCESANAS VASCAS

**75 AÑOS
ABIERTOS AL MUNDO**

DIÓCESIS DE SAN SEBASTIÁN

Misiones Diocesanas Vascas 2023

75 años abiertos al mundo / 75 urte mundura zabalik

“Id a todos los pueblos” Mt 28, 19.

De dónde venimos

La partida de los ocho primeros misioneros diocesanos a Ecuador, el 12 de octubre de 1948, fue el fruto de un largo camino de reflexión compartida, dificultades, sueños y anhelos de toda una Diócesis, que entonces englobaba a Bilbao, San Sebastián y Vitoria, y particularmente de aquel Seminario Diocesano en el que se vivía un gran fervor misionero. De ello resultó una experiencia pionera en el mundo: la encomienda de un territorio de Misión a una Iglesia particular. Así nacieron las Misiones Diocesanas Vascas.

La Misión, un diálogo que nos transforma

Desde 1948, las Misiones Diocesanas Vascas han estado presentes en diferentes lugares de América y África (Ecuador, Venezuela, Brasil, Chile, Angola, Ruanda y R. D. Congo), con casi 700 misioneros y misioneras que han contribuido a reforzar la apuesta por la Misión Universal de la Iglesia.

Este caminar se ha hecho realidad gracias al diálogo con las diferentes culturas y pueblos que ha ido transformando los modos de entender y de estar en la Misión: la inculturación, el trabajo con las comunidades, la promoción humana, la lucha por la justicia, la valoración de la religiosidad popular... De esta forma, nuestras diócesis, se han ido abriendo a la riqueza que nos aportaba la experiencia de acompañar la fe en medio de esos

Euskal Elizbarrutietako Misiokoak 2023
75 urte mundura zabalik / 75 años abiertos al mundo
“Zoazte herri guztietara” Mt 28, 19.

Nondik gatoz

1948.eko urriaren 12an Elizbarrutiko lehen zortzi misiolariak Ekuadorrera abiatzea, garai hartan Bilbao, Donostia eta Gasteiz barne hartzen zituen Elizbarrutiaren, bereziki misio-jaiera handia bizi zuen Seminario haren, baterako gogoeta, zailtasun, amets eta gogo biziz beteriko ibilbide luzearen emaitza izan zen. Hortik sortu zen ordura arte munduan ezagutzen ez zen esperientzia: Misioko lurralde jakin baten ardura lekuko Eliza bati ematea. Horixe izan zen Euskal Elizbarrutietako Misioren sorrera.

Misioa, eraldatu egiten gaituen hartu-eman

1948az geroztik, Euskal Elizbarrutietako Misiokoak Amerika eta Afrikako (Ekuador, Venezuela, Brasil, Txile, Angola, Ruanda, Kongoko E.D.) zenbait tokitan hedatu izan dira eta 700 misiolari inguruk Elizaren Mundu-mailako Misioren aldeko apustuari adore eta bultzada eman izan dio.

Misioa ulertzeko eta Misioan egoteko erak –aldatzea kulturatzea, elkartekiko lana, giza sustapena, justiziaren aldeko borroka, herri-erlijiositatea...– ekarri duen askotariko kultura eta herriekiko hartu-emanari esker, ibilbide hau egia bihurtu da. Honela, gure elizbarrutiak herri hauetan fede akonpainamendua eskaintzearen esperientziak, beren bizitza eta duintasuna mu-

pueblos, así como sus luchas para superar la pobreza y falta de oportunidades que limitan su vida y su dignidad.

En este proceso, no solo hemos acompañado; hemos aprendido muchas cosas, profundizando y enriqueciendo nuestro compromiso con las Iglesias jóvenes hermanas a las que hemos servido.

Es una alegría poder celebrar ahora 75 años de historia compartida. Este aniversario es una oportunidad para agradecer a tantas personas su fidelidad y compromiso misionero en las parroquias, en los grupos de misiones, en las corresponsalías de la revista Los Ríos... A las que forman la gran familia de misioneras y misioneros en cada realidad.

Renovando el mandado de “Id a todos los pueblos”

En la Campaña de San José de este año queremos recordar y, sobre todo, actualizar la idea fundante de nuestra Iglesia: “Id a todos los pueblos” (Mt 28, 19).

Queremos renovar hacia el futuro nuestro ser como Iglesias abiertas al mundo, impulsando la tarea primordial de la comunidad cristiana: comunicar nuestra experiencia de Dios, la Buena Noticia de un Jesucristo en el que Dios mismo se revela, que en oración descubre su camino y nos muestra la mejor ruta. Y lo hacemos respondiendo a la llamada del Señor Jesús en los gritos de una humanidad sufriente. Un Señor Jesús que necesita seguidores deseosos de defender la vida, inspirados en la plenitud del mensaje evangélico.

Hoy vivimos una realidad compleja, de desigualdad, de cambio climático, guerras, violaciones de derechos humanos... lo que supone un éxodo global de personas migrantes, refugiadas y desplazadas. Ante estas situaciones, como cristianos en misión, asumimos el anuncio integral del Evangelio, la vivencia del Dios de Jesús, su mensaje sanador a nivel personal y social.

gatzen duten pobretasuna eta aukerarik eza gainditzeko borro-
ken esperientziak, eman izan digun aberastasunera zabaldu dira.

Prozesu honetan, lagun egiteaz gainera, hamaika gauza ikasi
dugu, zerbitzatu ditugun Eliza ahizpa gazteen aldeko gure kon-
promisoa sakondu eta aberastu egin dugu.

Pozgarria da 75 urteko historia bereko partaidetza ospatu
ahal izatea. Urteurren hau, aukera ona da hainbeste laguni, lekuz
leku, eremuz eremu, misiolarien familia handia osatzen duten
guztiei, parroketan, misio-taldeetan, Los Ríos aldizkariaren ko-
rresponzsalietan..., erakutsi duen misio-leialtasun eta konpromi-
soa eskertzeko.

“Zoazte herri guztietara”

San Jose eguneko aurtengo kanpainan, gure Elizaren sor-
tzezko sena gogoratu eta, batez ere, eguneratu nahi dugu:
“Zoazte herri guztietara” (Mt 28, 19).

Mundura zabalik gauden Eliza gara eta sen hori berritu egin
nahi dugu etorkizunari begira, kristau elkartearen ezinbesteko
egitekoa bultzatuz: Jainkoaz dugun esperientzia, Jainkoak bere
burua agertzeraz emateko aukeratu duen, otoitzean bere bidea
aurkitzen duen eta ibilbiderik onena erakusten digun Jesukristo-
ren Berri Ona zabaldu. Eta Jesus Jaunak gizadi atsekabetuaren
garrasietan egiten digun deiari erantzunez egiten dugu hori.
Ebanjelioaren mezuaren osotasunean oinarriturik, biziaren alde
egiteko gogo bizia duten jarraitzaileak ezinbesteko dituen Jesus
Jaunari baiezkua emanez.

Gaur egungo errealitatea, konplexua da, izan ere, desberdin-
tasuna, klima-aldaketa, gerrak, giza eskubideen urraketak... he-
daturik daude han eta hemen eta, ondorioz, geldiezina da
pertsonek migratzaileen, errefuxiatuen eta desplazatuen mundu-
mailako irteera. Egoera hauen aurrean, misioan gauden kristau
izanik, geure gain hartzen dugu Berri Onaren osoko iragarpena,
Jesusen Jainkoaren, bere mezu sendatzailearen banakako eta
gizarteko bizipena.

Aunque en Europa, en nuestros ambientes, la necesidad de misión se hace cada vez más urgente y compleja, no podemos perder esa mirada universal que ensancha nuestro corazón y abre nuestras mentes, ayudándonos a salir de nuestros círculos y perspectivas, a menudo, demasiado pequeños. Cristo desea que su salvación llegue a los confines de la tierra y nos sigue pidiendo colaboración.

“La vida no es tiempo que pasa, sino tiempo de encuentro”, nos dice el Papa Francisco. La misión es ese encuentro con el Señor en los empobrecidos, de los que recibimos mucho. Él nos sigue llamando a ser sal, luz y levadura, como el grano de mostaza que desde lo sencillo va creciendo poco a poco en fruto y en esperanza.

El compromiso misionero, que llevó a nuestras diócesis a apostar por la evangelización de otros pueblos, nos ha enriquecido y ha sido un elemento transversal e identitario de las tres diócesis vascas. Queremos que siga siéndolo también en el futuro.

El momento de las Iglesias jóvenes

Los tiempos cambian y hoy aquellas comunidades nacientes que acompañamos, van creciendo y haciéndose Iglesias maduras. Nuestro modo de acercarnos, de acompañar, de relacionarnos con ellas es necesariamente distinto. Pero la llamada de Jesús a salir y a comunicar el Evangelio a todos los pueblos sigue ahí y no puede perder fuerza.

A lo largo de los años nos hemos nutrido con los testimonios de misioneros y misioneras en las parroquias, de las voces del sur, con los Hermanamientos, las “experiencias de verano”. Seguiremos buscando caminos y concretando propuestas, antiguas y nuevas que aterricen nuestro ser misionero.

Continuamos en la tarea, en animación misionera y en cooperación con otros pueblos e Iglesias. Necesitamos nuevas voca-

Europar, gure bizigiroetan, misioaren beharra gero eta premiazko eta zailagoa bada ere, sarritan txiki-txikiak diren gure zirkulu eta ikuspuntuetatik ateratzen lagunduz, gure bihotza eta burua zabaltzen duen begirada unibertsala ezin dugu galdu. Bere salbazioa lurraren mugalde guztietara irits dadila nahi du Kristok eta, gaur egun ere, elkarlanean aritzea eskatzen digu.

“Bizitza ez da badoan denbora, elkartzeko denbora baizik”, esaten digu Frantzisko Aita Santuak. Misioa, asko ematen diguten txirotuengan Jainkoarekin bat egitea da. Honek dei egiten digu gaur ere, gatz, argi eta legamia, xumetasunetik haziz doan eta fruitu eta itxaropen bilakatzen den ziape-alearen antzeko izan gaitezen.

Gure elizbarrutiak beste herri batzuen ebanjelizazioaren aldeko apustua egitera bultzatu zituen misio-konpromisoak aberastu egin gaitu eta hiru elizbarrutiak zeharkatu dituen eta nortasuna eman dien bitartekoa izan da. Etorkizunean ere, horrela izatea nahi dugu.

Eliza gazteen garaia

Aldatu egin dira garaiak, eta gidatu genituen elkarte jaio berri haiek hazi eta Eliza heldu bihurtu izan dira. Orain, nahitaez, beste era batera hurbildu behar dugu elkarte horietara, beste era batera lagun egin behar diegu, beste era bateko harremana izan behar dugu beraiekin. Baina Jesusek atera eta Berri Ona herri guztiei iragartzeko egiten digun deia entzun egin daiteke gaur ere eta dei horrek ez du indarririk galdu behar.

Urteak joan, urteak etorri, misiolarien, Hegoaldeko ahotsen lekukotasunekin, senidetzeekin, “udako esperientziekin” elikatu gara parroketan. Aurrerantzean ere, bideak bilatu eta proposamenak zehaztuko ditugu, zahar eta berriak, gure misiolari izatea unean-unean eta lekuan-lekuan molda dadin.

Lanean jarraituko dugu, misio-sustapenean eta beste herri eta Elizekiko lankidetzan. Ezinbestekoak dira tradizio aberats

ciones que recojan el testigo de esta rica tradición, encarnando también hacia el futuro esa llamada del amor de Dios que nos mueve, nos abre a nuevos descubrimientos y nos enriquece en el proceso.

Celebramos este aniversario pidiendo a Dios que nos ayude a profundizar y actualizar nuestro espíritu misionero. Le pedimos también la humildad necesaria para comprender que, aquellos a quienes acompañamos, puedan ahora tendernos su mano para afrontar el gran desafío evangelizador que tenemos en esta Europa, cada año, un poquito más vieja y secular.

Joseba Segura Etxezarraga

Obispo de Bilbao

Obispo Delegado para las
Misiones Diocesanas Vascas

honen lekukoa jasoko duten bokazio berriak, mugiarazi, aurkikuntza berrietara ireki eta prozesuan aberastu egiten gaituen Jainkoaren maitasunaren dei hori etorkizunari begira gorpuztuz.

Urteurren hau ospatzean, gure misio-sena sakontzen eta eguneratzen lagun diezagula eskatuko diogu Jainkoari. Ezinbesteko apaltasuna ere eskatuko diogu, laguntzen ditugun haiek, urtetik urtera apur bat zaharrago eta sekularrago den Europa honetan dugun egundoko erronka ebanjelizatzaileari aurre egiteko laguntza eman diezaguketela uler dezagun.

Joseba Segura Etxezarraga
Bilboko Gotzaina
Euskal Elizbarrutietako Misioetarako
Gozain Ordezkarria

19 de marzo
IV DOMINGO DE CUARESMA
Misiones diocesanas

Saludo

La gracia y el amor de Jesucristo, que nos llama a la conversión estén con todos vosotros.

Monición de entrada

A este cuarto domingo de Cuaresma, le llamamos domingo «laetare»: domingo de la alegría, porque está ya cerca la fiesta de la Pascua. Se nos invita a orar, si cabe, con más intensidad: la tarea de Jesús y, por tanto, la de sus seguidores, es la de mostrar a todos los seres humanos un camino de vivir con mayor plenitud; más que con palabras, lo hacemos con lo que vivimos y con los signos que hacen que la salvación suceda realmente.

Hoy celebramos el día de nuestras Misiones diocesanas con este lema: «**75 años abiertos al mundo**». La oración y la colecta de hoy serán especialmente para nuestras misiones. Aunque se han debilitado nuestras fuerzas para enviar misioneros, nuestras diócesis nunca pueden dejar de ser misioneras, porque la misión es nuestra esencia.

Acto penitencial

Jesucristo, el justo, intercede por nosotros y nos reconcilia con el Padre. Abramos, pues, nuestro espíritu al arrepentimiento para acercarnos a la mesa del Señor.

— Tú, que nos salvas por pura compasión: Señor, ten piedad.

Martxoaren 19an
GARIZUMAKO IV. IGANDEA
Gure Elizbarrutien misioak

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako laugarren igande honi «laetare» igandea deitu izan zaio: alaitasunaren igandea, gertu dagoelako jada Pazko jaia. Otoitz sutsuagoa egiteko deia egiten zaigu: Jesusen eginkizuna da eta, beraz, bere jarraitzaileona ere bai, gizaki guztiei era betea-goan bizitzeko aukera aurkeztea; hitzez baino gehiago, bizi dutenaren testigantzaz eta salbamena gertarazten duten ezaugarrien bidez.

Elizbarrutien misioetarako otoitza eta diru-bilketa gaur dugu «**75 urte Mundura zabalik**» goiburuarekin. Misiolariak bidaltzeko indarrak ahuldu bazaizkie ere, gure elizbarrutiek ezin dute inolaz ere galdu elizan misiolari-izaera. Gure eskuzabalez laguntzeko aukera izango dugu.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, zuzena denak, Aitarekin adiskidetzen gaitu. Ager dezagun gure bekatua eta damu-jarrerera Jaunaren mahaira gerturatzeko.

- Jesus Jauna, onginahi hutsez sal**bat**zen gaituzuna: erruki, Jauna.

- Tú, que nos enriqueces con tu gracia: Cristo, ten piedad.
- Tú, que en la cruz nos muestras el amor ilimitado de Dios. Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna. R/. A Amén.

Oración colecta

**Oh, Dios, que, por tu Verbo,
realizas de modo admirable
la reconciliación del género humano,
haz que el pueblo cristiano
se apresure, con fe gozosa y entrega diligente,
a celebrar las próximas fiestas pascuales.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu santo
y es Dios
por los siglos de los siglos. R/. A Amén.**

Monición a las lecturas

Caminar como hijos e hijas de la luz es lo que corresponde a los cristianos y a todo hombre y mujer de buena voluntad. Para ello es necesario aprender a mirar no solo con los ojos, sino también con el corazón. Las lecturas de hoy resaltan la fuerza iluminadora de la fe.

Sugerencia para la homilía

1. La vista física nos permite contemplar la realidad del mundo, distinguir los objetos, tener seguridad en los diferentes lugares en los que nos encontramos. Quienes, en cambio, padecen la ceguera están limitados y carecen de la representación correcta de lo que perciben con otros sentidos. Algo semejante sucede

- Jesus Jauna, zure graziaz aberrasten gaituzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gurutzean Jainkoaren maitasun neurrigabea era-
kutsi diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. R/. A Amen.

Otoitza

**Oi Jainko, zure Hitzaren bidez
miragarriri adiskidetu zenituen gizon-emakumeak
Zeurekin;
egizu, kristau-herria, maitasunean bero eta
sinesmenean alai,
presta dadila hurbiltzen ari diren pazko-jaietarako.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.
R/. A Amen.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Argiaren seme-alaba bezala ibiltzea da kristauei eta gogo oneko gizon-emakume guztiei dagokiena. Horretarako, beharrezkoa da begiekin bakarrik ez, baizik eta bihotzarekin ere begirutzen ikastea. Gaurko irakurgetan argia emateko fedea duen indarra azpimarratzen dute.

Homiliarako argibideak

1. Ikusmenari esker, munduaren errealitatea ikus dezakegu, objektuak bereizi, gauden tokietan segurtasuna izan. Aldiz, itsutasuna dutenak mugatuta daude, eta ez dute beste zentzumenekin hautematen dutena bere osoan sumatzen. Antzeko zerbait gertatzen da guran, gure biziaren zentzuaz, gizarteaz, munduan

cuando se trata de la idea que tenemos de nosotros, del sentido de nuestra vida, de la sociedad, de lo que sucede en el mundo, de los valores y contravalores. Podemos estar ciegos dejándonos guiar por opiniones, ideologías, puntos de vista sin analizarlos críticamente o también podemos tener miopía intelectual y otras enfermedades de la vista que sólo nos permiten considerar parcialmente esas realidades que afectan a nuestra existencia y no acaban de darnos una visión satisfactoria de todo lo que implica la vida humana especialmente ante el enigma de la muerte.

2. El domingo anterior nos presentó a Jesús como el agua de vida. Hoy nos lo presenta como luz del mundo, como Aquél que cura nuestra ceguera y nos permite ver en forma diferente el misterio de la vida humana. Dándonos la vista nos ayuda a comprender nuestra dignidad de hijos de Dios llamados a la comunión con Él. Al abrirnos los ojos del entendimiento nos permite situarnos en el mundo y nos da una clave de interpretación de las realidades terrenas. Nos ayuda a saber relativizar los acontecimientos y a enfrentar los desafíos que se van presentando desde una perspectiva que tiene en cuenta nuestro destino eterno. No sólo eso. Jesús nos invita a su seguimiento y con la visión de fe ilumina la oscuridad de nuestro camino y hace posible que lo sigamos y que podamos comprometernos para abrir también los ojos de nuestros hermanos y comunicarles la luz que recibimos de Cristo.

3. Debemos dar gracias a Dios no sólo por el don de la vista física sino sobre todo por el don de la fe que es para nosotros lo que nos cura de la ceguera que nos impide ver la realidad en su verdadera dimensión o de la miopía espiritual que nos hace ver confusamente y, por lo mismo, nos lleva a actuar equivocadamente. Estamos inmersos en un mundo de oscuridad. Los avances tecnológicos y científicos no engloban la totalidad del saber; sobre todo no dan una respuesta iluminadora y satisfactoria a las preguntas fundamentales del ser humano: ¿en qué consiste la felicidad? ¿Quién soy yo? ¿El mundo es fruto del azar? ¿Cuál es

gertatzen denaz, balioez eta kontrabalioez dugun ideiarekin. Itsu egon gaitezke, iritziak, ideologiak eta ikuspuntuak kritikoki aztertu gabe jokatzuz, edo miopia intelektuala eta bistako beste gaixotasun batzuk ere izan ditzakegu, gure izateari eragiten dioten errealitate horiek –bereziki heriotzaren aurrean nola kokatzen garen– era osoan ulertzea eragozten digutenak.

2. Joan zen igandean Jesus biziaren ur gisa aurkeztu zitzaigun. Gaur, berriz, munduaren argitzat agertzen zaigu, gure itsutasuna sendatzen duen eta giza bizitzaren misterioa beste era batera ikusteko aukera ematen digun argitzat. Ikusmena emanda, gure Jainkoaren seme-alaben duintasuna eta Berarekin bat eginda bizitzeko deia ulertzen laguntzen digu. Adimenaren begiak irekitzean, munduan kokatu gaitezke, eta bertako errealitateak interpretatzeko gakoa ematen zaigu. Gure betiko etorkizuna kontuan hartzen duen ikuspegitik, gertaerak erlatibizatzen eta aurkezten diren erronkei aurre egiten jakiten laguntzen digute adimenaren begiek. Ez hori bakarrik. Jesusek Berari jarraitzera gonbidatzen gaitu, eta fedearen begiak zabalduz gure bidearen iluntasuna argitzen du. Horri esker, aurrera egiten dugu, eta gure anai-arreben begiak irekitzeko eta Kristogandik jasotzen dugun argiaren berri emateko konpromisoa har dezakegu.

3. Eskerrak eman behar dizkiogu Jainkoari, ez soilik ikusmen fisikoagatik, baizik eta, batez ere, fedearen dohainagatik, horrek sendatzen baikaitu errealitatea bere benetako dimentsioan ikustea galarazten digun itsutasunetik, edo erdizka ikusarazten digun eta oker jardutera garamatzen miopia espiritualetik. Iluntasuneko mundu batean murgilduta gaude. Teknologia- eta zientzia-aurrerapenek ez dute jakintza osoa biltzen; batez ere, ez diete erantzun argitzaile eta egokia ematen gizakiaren funtsezko galderei: Zer da zorientasuna? Nor naiz ni? Mundua kasualitate baten ondorioa da? Zein da nire etorkizuna? Komunikabideek eta ideologiek galdera horiei erantzuna eman eta argitu nahi dituzte, baina egiten duten gauza bakarra galdera horiek are gehiago

mi destino? Los medios de comunicación y las ideologías pretenden dar respuesta a estas preguntas e iluminarlas, pero lo único que hacen es oscurecerlas aún más. Como cristianos estamos llamados a testimoniar que Cristo es la luz del mundo que nos ayuda a tomar conciencia de las injusticias, opresiones, odios, divisiones; de la dignidad humana y de nuestro destino eterno. La visión cristiana de la vida ayuda a superar la ceguera en la que nos encontramos y en la que los que dominan el mundo quieren mantenernos.

Oración de los fieles

Hermanos, oremos al Señor, que no quiere la muerte del pecador, sino que se convierta y viva, y pidámosle misericordia para su pueblo penitente:

Respuesta: ¡Kyrie, eleison!

- Para que Dios aumente la fe y fortalezca la voluntad de los que se preparan a recibir en estos días cuaresmales el sacramento de la penitencia y les conceda un verdadero camino de reconciliación. Oremos. R/.
- Para que el Señor abra la inteligencia y el corazón de los incrédulos, de manera que lleguen al conocimiento de la verdad, y en la fe encuentren aquel descanso que tanto desea su corazón. Oremos. R/.
- Por nuestras Misiones diocesanas: por nuestros misioneros que, en nombre de todos nosotros, anuncian el evangelio en tierras necesitadas, por quienes nos esforzamos en ayudarles desde aquí. Que seamos conscientes de que la acción misionera es constitutiva de la Iglesia. Oremos. R/.
- Para que todos nosotros perseveremos en el esfuerzo cuaresmal y lleguemos, purificados e iluminados, a las fiestas de Pascua que se acercan. Oremos. R/.

iluntzea da. Kristauak garen aldetik, Kristo munduaren argia dela esan behar dugu, injustizien, zapalkuntzen, gorrotoen, zatiketen, giza duintasunaren eta gure betiko etorkizunaren kontzientzia hartzen laguntzen diguna. Bizitzaren ikuspegi kristauak egungo itsutasuna gainditzen laguntzen du, mundua menderatzen dutenek itsutasunean nahi bagaituzte ere.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, egin diezaiogun otoitz Jaunari, ez baitu nahi bekatariaren heriotza, bihotz-berritu eta bizi dadila baizik, eta eska diezaiogun izan dezala errukia bere herri damutuarekin:

Erantzuna: Kyrie, eleison!

- Jaunak sendo ditzala Garizumaldi honetan adiskidetzearen sakramentua hartzeko prestatzen direnak eta beraien erruen egiazko damua iristen lagun diezaiela.
Egigun otoitz. R/.
- Jaunak fedegabeen adimena eta bihotza zabal ditzala egia ezagutzera irits daitezen, beraien bihotzak amesten duen egiazko atsedena iritsi dezaten.
Egigun otoitz. R/.
- Elizbarrutiko misioen alde: lurralde behartsuetan gu guztion izenean Jesusen berri ona zabaltzen ari diren gure misioen alde, hemendik haiei laguntzeko ahalegina egiten dugunon alde. Misiolaritza Elizaren jarrera ezinbestekoa dela jabetu gaitezen.
Egigun otoitz. R/.
- Garizumako bidean aurrera eginez bihotz-berrituak eta argituak irits gaitzela gertu ditugun Pazko jaietara.
Egigun otoitz. R/.

Dios, rico en misericordia, que acoges con el abrazo del perdón a tus hijos que, arrepentidos, retornan a ti, escucha nuestras oraciones, perdona nuestras culpas y revístenos con vestiduras de fiesta para que podamos participar en el banquete pascual. R/. A Amén.

Oración después de la comunión

Oh, Dios,
luz que alumbras a todo hombre
que viene a este mundo,
ilumina nuestros corazones con la claridad de tu gracia,
para que seamos capaces
de pensar siempre, y de amar con sinceridad,
lo que es digno y grato a tu grandeza.
Por Jesucristo, nuestro Señor. R/. A Amén.

Oración sobre el pueblo y bendición

El Señor esté con vosotros. R/. Y con tu espíritu.
Inclinaos para recibir la bendición.

(Con las manos extendidas sobre el pueblo, dice la oración:)

Defiende, Señor, a los que te suplican,
fortalece a los débiles,
vivifica siempre con tu luz a los que caminan
en sombras de muerte,
y, libres de todo mal por tu compasión,
concédeles llegar a los bienes definitivos
Por Jesucristo, nuestro Señor. R/. Amén.
Y la bendición de Dios todopoderoso,
Padre, Hijo +, y Espíritu Santo,
descienda sobre vosotros y os acompañe siempre.
R/. Amén.

Podéis ir en paz. R/. Demos gracias a Dios.

Errukian aberatsa zaren Jainkoa, barkamen besarkadaz onartzen dituzu damaturik zugana itzultzen direnak; entzun gure otoitzak eta gure bekatuak barkaturik jantzi gaitzazu eztaisoinekoz, pazko-otorduan parte hartu ahal izan dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R/. A Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Oi Jainko, Zuk argitzen dituzu
mundu honetara etorri diren gizon-emakume guztiak;
argitu gure bihotza zeure graziaren distiraz,
Zuri atsegin zaizuna erabil dezagun beti gogoan
eta Zu benetan maita zaitzagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R/. A Amen.**

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

**Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.
Makur zaitetze, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.
(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)**

**Zaindu itzazu, Jauna, zure laguntza eske dituzunok,
indartu ahulak eta argitu beti zeure argiaz
herio-ilunpean dabiltzanak,
gaitz guztietatik bihotz onez aterata,
ondasun gorenak eskura ditzaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.**

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak.
R/. Amen.**

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

GURE ELIZBARRUTIETAKO MISIOAK 2023 (2022ko diru-eskearen laburpena)

<u>Artziprestaldea</u>	<u>euro</u>
Beterri	6.829,58
Donostia	12.534,51
Ekialde	5.783,00
Goierri	4.786,90
Mendebalde	5.428,18
Urola-Kosta	5.386,52
Beste zenbait	<u>2.298,40</u>
GUZTIRA:	<u>43.047,09</u>

Pandemiak sortutako egoera larria izan arren, Misioen alde eskuzabaltasunez jokatzen jarraitzen dugu Gipuzkoako eliztarrok. ESKERRIK ASKO!

A pesar de la situación complicada que ha generado la pandemia, los fieles de Gipuzkoa seguimos actuando con generosidad a favor de las Misiones. MUCHAS GRACIAS.

Kutxabank ES20 2095 5001 0510 6068 5889

Laboral Kutxa ES12 3035 0060 4106 0070 4166

Caixabank ES05 2100 8686 8002 0002 3922



00931